

2016-2017ko DENBORALDIAN, JOKALARIEN ETA KLUBEN LIZENTZIAK

FEDERAZIOKO LIZENTZIAK

Nafarroako Xake Federakundearen kirol denboraldia 2016ko irailaren 1ean hasi da eta 2017ko abuztuaren 31n amaituko da.

Epe horretan lizentziak atera daitezke. Beren balioa 2017ko abuztuaren 31n bukatuko da.

JOKALARIEN LIZENTZIAK

Lizentzia hori beharrezkoa da Nafarroako Xake Federakundeak antolatzen dituen txapelketetan parte hartzeko. 18 urtez azpiko txapelketetan parte hartzeko beharrezkoa da. Nafarroako Xake Federakundea ordezkatzeko ere beharrezkoa da.

Denboraldian zehar jokalaria batek kluba aldatzen badu, klub berrian ezin izanen du jokatu, aurreko klubarekin partidaren bat jokatu badu.

Lizentziaren prezioak:

- 18 urtez gorakoentzat (1999. urtearen aurretik jaiotakoentzat): 30 euro.
- 18, 16, 14, eta 12 urtez azpikoentzat: 20 euro.
- 10 eta 8 urtez azpikoentzat: 15 euro.

Bi autonomia elkargotan aldi berean lizentzia edukitzea ez da onartzen.

Jokalaria titulatuak, urte berean edo denboraldi berean, beste autonomia elkargoetan taldekako txapelketaren bat edo banakako txapelketaren bat jokatu badute, ezin izanen dute jokatu Nafarroan antzeko txapelketa.

Jokalaria ez titulatuak, denboraldi berean, beste autonomia elkargoetan taldekako txapelketaren bat edo banakako txapelketaren bat jokatu badute, ezin izanen dute jokatu Nafarroan antzeko txapelketa.

Arrazoitu gabeko ez agertzeagatik jokalaria batek lizentzia galtzen badu, berriz egin dezake (berriz ordainduta), hurrengo txapelketetarako.

KLUBEN LIZENTZIAK

Lizentzia hori beharrezkoa da Nafarroako Xake Federakundeak antolatzen dituen txapelketetan parte hartzeko. Nafarroako Xake Federakundea ordezkatzeko ere beharrezkoa da.

Aurretik, Nafarroako Kirol Institutuko Kirol Entitateen Erregistroan izena emanda egon beharra dago, xakeko atal batekin.

Lizentziaren prezioa: 60 euro.

2016-09-25.

Iturria: 2016-17ko denboraldirako, Nafarroako Xake Federakundeko Araudi Orokorra.